

## **Etika Publikorako Batzordea**

**8/2016 gaia**

### **ERABAKIA, (...) JAUNAK, EUSKO JAURLARITZAKO (...) ZUZENDARIAK, (...) INSTRUKZIO-EPATEGIAN TRAMITATZEN ARI DIREN AURRETIAZKO EGINBIDEETAN IKERTU GISA ENTZUNA IZATEKO JASO DUEN ZITAZIOAREN GAINEAN EGIN DUEN KONTSULTARI BURUZKOA.**

1.- 2016ko (...) (e)(a)n Etika Publikorako Batzordearen (EPB) Idazkaritzara posta elektronikoz igorritako mezu batean, interesdunak, hots, Eusko Jaurlaritzako zuzendariak, irizpena eskatuzion organo honi, Instrukzio-epaitegian tramitatzen ari diren aurretiazko eginbideetan ikertu gisa entzuna izateko jaso duen zitazioaren gainean.

2.- Mezu elektronikoko labur eta zehatz batean, kontsulta-egileak EPB honi eskatzen dio aipatutako "aurretiazko eginbideen prozesua" ebalua dezan, "behar beste argibide emateko" prest dagoela adieraziz.

3.- Mezuari dagokion zitazio-zedula erantsi zaio, eta bertan eskatzen zaio interesdunari Epaitegiaren egoitzan agertzeko "ikertu gisa entzuna izateko, Prozedura Kriminalaren Legearen 486. artikuluan ezarritakoarekin bat, itxuraz delitu izan daitezkeen prebarikazio administratibozko eta bidegabe eralgitze/maulazko egitateengatik".

4.- Gertatutakoaren aurrekariak sakonago aztertuta jakin izanenez, interesduna (...) zuzendari izendatu zuten; behar bezala eta epe barruan atxiki zitzaion Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Etika eta Jokabide Kodeari [EJK aurrerantzean], eta Kargu Publikoen Jokabide Kodea eta haien Interes gatazkak arautzen dituen legearen [JKIGL aurrerantzean] 4.1 artikulua arabera sortutako Kargu Publikoen Katalogoan sartu zen: bai azaroaren 18ko 2016/2014 Dekretuaren bidez onartutako hasierako katalogoan, bai eta martxoaren 22ko 49/2016 Dekretuan eranskin gisa agertzen den gaur egungo katalogoan ere.

8.- Hori horrela, hauexek da EPB honek, EJKren 16.4 artikuluko bigarren idatzi-zatiak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, aho batez hartu duen

## **ERABAKIA:**

### **I.- Aurrekariak**

1.- Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Etika eta Jokabide Kodea politikaren etika-zentzua berreskuratzeko asmoz sortu zen, bai eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzeko neurri gisa ere.

Horretarako, Etika eta Jokabide Kodeak identifikatu egiten ditu Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikoei eta parekatuei eska dakizkiekeen jokabide, jarrera eta portaerak, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezen dokumentu horretan aurrez zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua osotasuna eta eredugarritasuna sustatzea da azken batean, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren eraginkortasuna sendotuz eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahalegina eginez.

2.- Etika eta Jokabide Kodeak oinarritzko bost balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna, kudeaketari lotutako erantzukizuna, gardentasuna eta gobernatze irekia, onestasuna eta desinteres subjektiboa, errespetua eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek erreferentzia-parametrotzat hartu behar ditu gai eta zalantza etikoei erantzun beharra egokitzen bazaio, beren borondatez kodearekin bat egiten duten kargu publikoek eta parekatuek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko interesa duten gainerako pertsonen halakorik helaraziz gero.

3.- Horretarako, Kodearen 16.3 atalaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, EPB bera da organo eskuduna “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio eta jokabideak ustez ez betetzeagatik egindako kexak edo salaketak jasotzeko, halakorik balego, eta dagokien bidetik bideratzeko”.

### **II.- EPB-RI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA**

1.- Hizpide dugun kasua aurten ebatzi ditugun 5/2015, 6/2015, 9/2015, 13/2015, 3/2016, 4/2016, 6/2016 eta 7/2016 Erabakien esparruan kokatzen da. Erabaki horietan guztietan, EAEko sektore publikoko hainbat kargu publikok aurkeztutako kontsultei erantzun diegu, EJKren 15.5 atalarekin lotutako kontsultak denak ere.

2.- Etika eta Jokabide Kodearen 15. atalak, zeinak “eredugarritasunari eta kanpoko beste adierazpen batzuei buruzko jokabideak eta portaerak” biltzen baititu, hau arautzen du bosgarren puntuan: “Kargu publikoren bat edozein prozesu penaletan zein administrazio-

zehapenetan inputatuz gero karguari dagozkion egiteko publikoari lotutako gertaeren ondorioz edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz, horren berri emango zaio Etika Publikorako Batzordeari, kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak eman ditzan”.

3.- Erabaki hau hartzeko, koherentzia-arrazoi agerikoak tarteko, eredutzat hartuko dira 1. puntuko erabakietan erabilitako arrazoibideak, eta, horretan azpimarratu dugunez, EJK-ko 15.5 atalean deskribatzen den kasuan nahasitako Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikoek –alegia, karguari dagozkion egiteko publikoari lotutako gertaeren ondorioz edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan inputatuak direnek– “kontsulta egin” behar diote EPB honi. Etika eta Jokabide Kodeak, ordea, ez du berariaz arautzen zer erantzun eman behar zaion kontsulta horri, eta esaten duen gauza bakarra da “kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak” emango dituela EPBk horrelako egoera bat gertatzean.

Ikusten den moduan, araua ez dago erabat osatua; izan ere, egitatezko ekintza bat zehazten du, baina ez du modu zorrotzean xedatzen zer ondorio izango duen ekintza hori egiteak. EPB honen egitekoa da, kasuko kargu publikoaren kontsulta jaso ondoren, arau horren edukia integratzea, “kasu bakoitzean” zer egin behar den erabakitzeke. Horrek esan nahi du EJK-k berariaz ematen diola eskumena batzordeari “kasu bakoitzean” egokien irizten dion erabakia hartzeko, eta kode horren balioak eta printzipioak izango dira erabaki hori hartzean izango dituen lotura-erreferentzia orokor bakarrak.

4.- Aurreko puntuan adierazitakoari gaineratuta, EJKren 15.5 atalaren azken tartekiak arautzen du kargua kendu baldin bazitzaion kargudunari eta prozedura izapidetzean “egiaztatzen bada ez duela erantzukizunik” hau egingo dela kargua kendu zaionarekin: “Berriro emango zaio [...] edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da”.

Pasarte horren lehenengo eta gainerako irakurketa eginda bestelakorik irudi dezakeen arren, agindu horrek ez du baliogabetzen gorago zirriboratu dugun interpretazioa; aitzitik, berretsi egiten du hura. Puntu hau zehazterakoan, EJK idatzi zutenek erabili zuten esapideak –“kargua kendu baldin bazitzaion”– argi eta garbi uzten du goi-karguari kargua kautelaz kentzea aukera bat baino ez dela, hau da, EPBk eskura duen aukera-sortako beste aukera bat, eta ez, inondik ere, eskura duen aukera bakarra. Horregatik, hain justu, arautzen da, "egoera" jakin horretarako, derrigorrezkoa izango dela karguaz gabetua izan denaren errehabilitazio publikoa egitea, zigorrik edo zehapenik ez bazaio azkenean ezarri. Ez gainerako egoerentarako. Horren guztiaren jakitun, ondorioztatu behar da, Etika eta Jokabide Kodeak berariaz prozesu penal batean edo administrazio-zehapen batean inputatutako kargudunaren kautelazko kargugabetzea bakarrik aipatzen duen arren, “kasu bakoitzean egokiena” dela irizten dionean soilik proposatu behar duela EPBk neurri hori –eta ez besterik–.

5.- Gorago adierazi dugun 5/2015 Erabaki horretan argudio-oinarri zabal bat ezarri genuen egoera hauen inguruan –bereziki nabarmentzen dira 5. puntutik 12. punturako argudioak– eta

hona ekarri behar da argudio-oinarri hori. Hori horrela, kontuan hartu beharrekoak dira zer hiru aukera zehaztu diren aurreko puntuetan, erabakitze, berariaz, prozedura penalen edo administrazio-zehapenen izapidetzearen zer unetan den bateraezina eredugarritasun-printzipioa kargu publiko bat betetzearekin edo kargu publikoen izendatzearekin, baldin eta karguduna edo izangaia ikertua izaten ari baldin bada –lehen aukerak inputazioaren unea dela adierazten du, bigarrenak ahozko judizioa abiarazten den unea dela eta hirugarren aukerak, berriz, kondena-epaia edo inhabilitazio-zehapenaren ebazpena ematen den unea dela–, eta egokia dirudi, hasiera batean beti eta irizpide hori kasu jakin bakoitzera moldatzeko premia ekar dezaketen egoera puntualak alde batera utzita, bigarrenaren aukeraren alde egitea, hura baita hobekien eta proportzioa egokien zainduz bateratzen dituen eredugarritasun publikoaren eskakizunak eta herritarren eskubideei eta bermeei izan behar zaien begirunea. Eta hori guztia egin beharko litzateke, noski, argi eta garbi utzita ez litzatekeela aurreratutako kondena bat edo gerora etorriko den kondena baten aurrerapena izango kargu publiko bat kautela-neurri moduan kargutik kentzea, baldin eta horrelakorik egin beharko balitz, auzitegi eskudunak ahozko judizioa abiatzea erabakitzen duen autoa eman duelako prozedura penal batean, eta bai prebentziozko neurri profilaktiko soilak, eredugarritasunaren balioari indarra emateko erabakitakoa, eta, aldi baterako, pertsona horrek zerbitzuan diharduen erakundearen irudi ona zaintzeko hartutakoa; hori horrela, EJK-k 15 artikuluko 5. puntuak arautzen duena kontuan hartuta, “prozedura izapidetzean egiaztatzen bada kargu publikoak ez duela erantzukizunik, berriro emango zaio kargua [...] edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da”

6.- Onartu berria da martxoaren 30eko 3/2015 Legea, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jardura arautzekoa, eta lege horrek kargu publiko bat eskuratu edo karguan irauteko aukera ematen die prozedura penal batean edo administrazio-zehapeneko izapidetze batean sartuta dauden pertsonen, harik eta kondena-epai irmo bat edo inhabilitazio-zehapeneko ebazpen bat ematen den arte, baina aukera hori ez da bateragarria Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartu zuen EJKrekin, alde horretatik estua eta zorrotza baita. Izan ere, kode hori eman da politikaren zentzu etikoa berrezarri eta herritarrek erakunde publikoetan eta haietan lan egiten duten kargu publikoengan izan behar duten konfiantza berreskuratzeko.

7. - Beste muturrera joz gero, gehiegikeria bat izan daiteke inputazioaren unean finkatzea eredugarritasun-printzipioa eta kargu publiko baterako izendatua izatea edo kargu batean jarraitzea bateraezin direneko unea, eta horrek urratu dezake, neurri batean, lege-aldaketaren bidez babestu nahi den berme penalen eta prozesu-bermeen kultura. Arrisku hori are garbiago geratzen da urriaren 5eko 13/2015 Lege Organikoa onartu ondoren (2015eko urriaren 6ko BOE, 239. zenbakia). Lege horrek Prozedura Kriminalaren Legea aldatzen du, prozesuko bermeak sendotzeko eta ikerketa teknologikorako neurriak arautzeko, eta haren xedeetarikoa bat honako hau da: “legeak maiz eta terminologiaren alorrean zehatza izan gabe erabiltzen dituen esapide jakin batzuk kentzea, hala nola *inputatua*, hitz hori erabiltzen baita susmo

hutsengatik ikertuak diren pertsonak izendatzeko oraindik zantzu nahikorik izan gabe pertsona horri ikuspegi judizialek eta modu formalean egozteko zigorgarria den ekintzaren bat egin izana" (Zioen Azalpeneko V. atala). Epaitegian inputatu gisa deklaratzera deitutako kargu publikodun guztiak sistematikoki kargugabetzea proposatzeko adinako garrantzia eman ez gero inputazioari, horrek zuzenean talka egingo luke gizarteak inputazioaren larritasunari buruz izaten duen pertzepzioa arintzeko hartutako lege-erabakiarekin.

8.- Orain arte izandako kasuetan EPB honek bildu duen eskarmentuak agerian uzten du zuhurra, egokia eta orekatua dela 5/2015 Erabakia hartu zenetik izan dugun irizpidea. Hari esker, izan ere, ez dago arriskurik prebentziozko neurri profilaktikoak eskatzeko orduan azkarregi ibiltzeko eta tartean diren pertsonen irudi publikoari kalte konponezina egiteko. Orain arte, lau prozedura penaletan egin zaio kontsulta EPB honi kargu publiko batek ikertu gisa deklaratzeko zitazio judiziala jaso duela-eta, eta, haietako bitan, kausa largetsi eta hartutako neurriak artxibatu ditu organo judizial eskudunak –beste bietan, oraindik ez dute epairik eman–. Erabaki horrek babesa ematen dio guk irizpide zorrotz baina zuhur bat erabiltzeko egin dugun hautuari, eta irizpide berarekin jarduten jarraitzearen egokitasunari. 7/2016 Erabakian nabarmendu genuenez, kausa largetsi eta hartutako neurriak artxibatu diren bi kasuetan, 6/2015 Erabakiak eta 9/2015 Erabakiak ebatzitakoak dira.

9.- Ez diogu alferreko irizten kasu bakoitzaren inguruabar zehatzen arabera aztertu eta moldatu beharko litzatekeela azpimarratzeari; izan ere, ikertua izateko epailearen zitazio batek hemen zirriborro modura emandakoa baino epai etiko zorrotzagoa sorraraz dezake, baldin eta oso delitu larrien ondoriozkoa baldin bada edo alarma soziala eragiten duten baldintzetan gertatu baldin bada. Aitzitik, litekeena da ahozko judizioa abiarazteak ez eragitea EPB honen gaitzespenik, baldin eta bidezko lehia politikoarekin lotutako jarduerak sorrarazi badute hura, hau da, beren izaerarengatik gure eskumen-esparrutik kanpokoak diren jarduerak.

10.- 4/2015 eta 7/2015 kasuetan ez bezala –merkataritzako prozedura judiziala bata, eta Estatuko Herri Kontuen Epaitegiak bideratutako zorpekoen itzulketa prozedura bestea, hurrenez hurren–, dagokigun kasu honetan, bete egiten dira EJKren 15. ataleko 5. puntuak arautzen duen egitatezko gertakariarentzat zehaztuta dauden elementu guztiak, hots, kargu publikoak EPB honi egoeraren "berri ematekoak": kontsulta-egilea EJKri atxikitako kargu publikoa da eta ikertu gisa entzuna izateko zitazioa jaso du prozedura penal batean. Zitazioa egin den prozedura judizialaren xehetasunak ezagutzen ez ditugunez, kontsulta egin duen kargu publikoak eman ez dizkigulako, badirudi argi dagoela Instrukzio-epaitegia burutzen ari den ikerketak ez duela zerikusirik "haren karguari dagozkion funtzio publikoak betetzearekin", baizik eta Eusko Jaurlaritza ez den erakunde baten barruan eta haren izendapenaren aurretik gertatutako "garrantzi publikoko ekintza bereziekin".

11.- Haatik, interesduna ikertu gisa deklaratzera deitu duten prozedura judizialaren barnean, urrun dago oraindik ahozko epaiketaren hasiera, eta kontuan izan behar da hori dela, hain

justu, eredugarritasun-printzipioaren ondoriozko eskakizun etikoak betetzen hasteko erabaki honetako 5. puntuan ezarri dugun une prozesala, hau da, une horretan komeni da kargu publikoek beren kargua kautelaz uztea, lan egiten duten erakundearen irudia babesteko.

12.- Ez da erraza ikertutako gertakarien larritasuna aztertzea inputazioa gertatu den prozesu penalera eraman den auziaren muina alde aurretik epaitu gabe, eta, noski, ez da hori, inondik inora ere, gure egitekoa ez gure asmoa. Bestalde, dagokigun kasu honetan ere, inputatu gisa entzuna izateko zitazioa ez da gertatu eredugarritasunaren betebeharrarekin bateraezina den gizarte-alarmako egoera batean. Honek guztiak aholkatzen du, kasu honetan, Erabaki honen 5. puntuan ezarritako irizpide orokorra mantentzea.

13.- Guztiarekin, bada Erabaki honetan albo batera utzi ezin daitekeen datu bat, EPB honi interesdunak egindako kontsultaren inguruko denbora-inguruabarrei lotutakoa, kasu hau, orain artean ezagututako guztien artetik, nabarmendu eta berezi egiten duelako.

14.- Izan ere, 1. puntuarekin erlazionatutako Erabaki guztietan EAEko sektore publikoko kargu publikoek egindako kontsultak, EJKren 15.5 atalarekin lotutakoak, ikertu gisa deklaratzeko zegokien Instrukzio-epaitegira agertu baino lehenago egin ziren. Eta logikoa da horrela izatea bi arrazoirengatik.

15.- Batetik, gai honen inguruko gure Erabakietan adierazi bezala, EJKren 15.5 atalak lotzen ditu EPB honi kontsulta egiteko betebeharra eta "kargu publikoak eta parekatuak edozein zigor-prozeduran inputatzea"; eta hori, huts-hutsean, Instrukzio-epaileak inputatu gisa deklaratzera deitzeko zitazio judiziala erabakitzen duen unean gertatzen da -edo, zehatzago esanda, ikertu gisa, jada aipatutako urriaren 5eko 13/2015 Lege Organikoan ezarritako terminologiarekin bat; izan ere, 2015eko Memorian proposatua diogu Eusko Jaurlaritzari EJKren 15.5 atala aldatzea, "inputatu" hitza "ikertu" terminoarekin ordeztuko-

16.- Eta bestetik, EPBk ponderatu behar duena dagokion Erabakian delako, hain zuzen ere, kargu publikoari ikertu gisa deklaratzera joateko zitazio judiziala bidaltzea zein modutan izan daitekeen bateragarria Eredugarritasun-printzipioarekin; eta hori, bistan denez, soilik seriotasunez, zorrotztasunez eta bermeekin egin daiteke epailearen aurrean deklaratu baino lehen. Baina deklarazio hori egindakoan, gertatu da dagoeneko, halakorik badago, irudi instituzionalari egiten zaion kaltea, kontsulta eginez saihestu nahi den hori, alegia. Bestela esanda, kontsulta aurretiaz egin ezean, prebentzioko izaera galtzen du.

17.- Izan ere,

- 5/2015 kasuan, kargu publikoaren kontsulta 2015/03/27an egin zen, eta deklarazio judiziala, berriz, 2015/05/12an.

- 6/2015 kasuan, kargu publikoaren kontsulta 2015/05/11n egin zen, hasiera batean 2015/06/10erako aurreikusia, eta deklarazio judiziala, berriz, azkenean 2015/10/15ean egin zen.
- 13/2015 kasuan, kargu publikoaren kontsulta 2015/11/10ean egin zen, eta deklarazio judiziala, berriz, 2016/02/01ean.
- 3/2016 kasuan, kargu publikoaren kontsulta 2016/03/07an egin zen, eta deklarazio judiziala, berriz, 2016/04/22an.
- 4/2016 kasuan, kargu publikoaren kontsulta 2016/03/11n egin zen, eta deklarazio judiziala, berriz, 2016/04/22an.
- 6/2016 kasuan, kargu publikoaren kontsulta 2016/03/23an egin zen, eta deklarazio judiziala, berriz, 2016/04/22an.
- 7/2016 kasuan, kargu publikoaren kontsulta 2016/05/12an egin zen, eta deklarazio judiziala, berriz, 2016/06/20an.

9/2015 kasuan soilik egin zen deklarazio judiziala kontsulta egin aurretik. Baina gogoratu behar da hala gertatu zenean egoera berezi batzuk gertatu zirela eta horrek azaltzen duela desberdin jokatu izana: deklarazio judiziala egin zenean, Instrukzio-epaileak ikertu gisa deklaratzera zitaturako pertsonak ez zeukan oraindik kargu publikoren izaerarik, haren izendapena, erakunde eskudunak erabakia, oraindik ez zelako aldizkari ofizialetan argitaratu. Izan ere, izendapen hori aldizkari ofizialean jasotzeko agindua eman behar zuen Gobernuaren arduradunak egin zuen, hain zuzen ere, kontsulta, horri guztia EJKren aurkakoa ote zen argitzeko asmoz.

18.- Oraingo kasuan, berriz, (...) (e)ko data zuen zitazio judizialaren zedulak ikertu gisa deklaratzera joateko deitzen bazion ere (...) egunean, kargu publikoak ez dio kontsultarik egin EPB honi (...) arte; hau da, izapidea egin eta hiru aste eta egun bat pasatu arte. Eta horrek ez du haztaperen zorrotzik egiteko aukerarik ematen kasuaren inguruabarrei buruz, EPBk eskatzen duen iritzia prebentibo bat eman ahal izateko. Izatez, gure epaia ezin da honezkero prebentiboa izan, ez bada *ex post*.

Bestetik, kontsulta hori egin da, (...) oinarriaren gainean, oposizioko hautetsi batek Eusko Legebiltzarrean kontsulta-egileak EJK betetzen ote zuen nominalki galdetu eta gero. Beraz, ondoriozta daiteke EPBri egindako kontsulta ez dela etorri EJKn jasotako jokabideei borondatez atxikitzeko adierazitako asmo batetik, baizik eta oposizioko ekimen parlamentario batek bultzatu duelako.

19.- Aurreko guztiak argi uzten du EJKren 3.2 atalean "Kodean aurreikusitako arau etiko eta portaerak behar adina ez betetzea" gertatu dela hemen, eta EPBk gai horretan Erabaki batzuk hartu izanak, doktrina-lerro garbi bat ezarri izanak ez ditu EAeko kargu publikoak eta parekatuak salbuesten kontsulta egiteko betebeharretik, EJKren 15.5 atalean ageri bezala, karguren bat "edozein prozedura administratibotan zein zigor arlokoan" "inputatzen" duten

bakoitzean. Gaiaren inguruko gure erabakietan garbi adierazi dugun bezala –eta Erabaki honen 5 eta 9. puntuetan berretsitakoetan– EPB honek kargu publikoen kontsultei ematen dizkien "gomendioak" kasu zehatz bakoitzaren inguruabarretara egokitu behar dira, eta erabakiren batean –edo batean baino gehiagotan– ebatzitako konponbidea ezin izango da besteetan aplikatu. Gogorarazi behar da horren inguruan, EJK-k aurreikusi bezala, EPBren gomendioa "kasuan-kasuan" eman behar dela; eta horrek lagun dezake, halaber, etika publikoaren ikuspegitik hain garrantzitsua den goi-karguen arteko praktika onen kultura sendotzen, ohitura osasungarriak eta sinesmenak sortuz. Bestetik, aurreko puntuetan adierazi bezala, deklarazio judizialaren aurretik egin behar da kontsulta, EPB honek EJKren 15.5 atalean aurreikusitako prebentziozko ponderazioa egin eta "kasu bakoitzaren inguruan egoki irizten dion gomendioa" eman ahal izateko.

20.- 2015eko martxoaren 2an Gobernu Kontseiluak onartutako Erabakian egindako aldaketaren ondoren, EJKren 3.2 atalak ezartzen du "Modu sinesgarrian egiaztatu eta gero kodean aurreikusitako arau etiko eta portaerak behar adina bete ez direla edo horiek urratu direla [...] EPBak auzitan dagoen kargu publikoaren izendapena egin duen erakunde eskudunari proposatuko dio [...] inplikaturako pertsona edo pertsonak kargu-gabetzea, edo bestelako neurriak hartzea, zehapenezko izaera ez dutenak, eta egiaztatutako egitateen larritasunaren mailako proportziokoak izatea, ikuspegi etikotik kargu publikoen jarduera birbideratzeko, zuzentzeko eta hobetzeko eraginkorrak izateko".

21.- EPB honek ez du uste kasu honetan egiaztatu den EJKren "behar adina ez betetze" horrek kontsulta egin duenaren kargu publikoari kargu-gabetzeko moduko ondoriorik ekarri behar dionik. Gehiegikeriazko neurria litzateke, argi eta garbi. Egokiago irizten da kasu honetarako, "behar adina ez betetze" nabarmentzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian publikitate-ohar bat txertatuz.

Hori guztia dela-eta, EPB honek honako hau

#### **ERABAKITZEN DU:**

1.- Interesdunak Justizia Administrazioari laguntzen jarraitu behar du, eta unean-unean bete behar ditu Instrukzio Epaitegiak igortzen dizkion izapidetzeak, jada ikertu gisa deklaratu duen aurretiazko eginbideen eremuan.

2.- Ikusita zergatik egin den deklarazioa eta aintzat hartuta Erabaki honetan aztertu diren alderdiak, kontsultaren egileak jarrai dezake betetzen ari den karguan, harik eta, hala badagokio, auzitegi edo epaile eskudunak ahozko judizioa abiaraztea erabakitzeko autoa ematen duen arte.



3.- Prozedura horren barruan egiten ari diren jarduera judizialetan ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen bada, Etika Publikorako Batzorde honek proposatzen du kargu publikoa kargutik kentzea kautelazko neurri gisa, EJKren 15. ataleko 5. puntuan eta Erabaki honen 5. puntuan adierazten den bezala.

4.- EJKren 15. ataleko 5. puntuan aurreikusi bezala EPB honi kontsulta egiteko betebeharraren "behar adina ez betetze" bat gertatu denez, proposatzen dugu, 3.2 atalean ezarritakoarekin bat, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian publizitate-ohar bat txertatzea.

**Josu Iñaki Erkoreka Gervasio**  
**Etika Publikorako Batzordeko burua**  
**Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 19a**